

Gai ordena:

- 1- Inbertsio proposamenak 2016ko aurrekontuetan sartzeko**
- 2- Gai pendienteen jarraipena eta bestelakoak**
 - 2.1- Eskola**
 - 2.2- Energia aurrezteko plana**
 - 2.3- Langileen ordu eta atazen kudeaketa**

1- Inbertsio proposamenak 2016ko aurrekontuetan sartzeko

Hurrengo proposamenak adostu dira, ordena horretan:

- 1) Eskuratu berri dugun terrenoaren topografikoa (aurrekontua eskatu behar da)
- 2) Beheko kalerako proiektua (aurrekontua eskatu behar da)
- 3) Plaza txukundu / errepidea mantsotu (ggb 5000€)
- 4) Bizikleten gordailua (ggb 2000€, aurrekontua eskatuko da)
- 5) Ur depositotik datorren tuberia berritu (aurrekontua eskatu behar da)

2.1- Eskola

Gaur goizean Hezkuntza Saileko arduradunak eta arkitekto berria etorri dira Itsasondora eskola ezagutzera. O.A. eta A.R. bertan izan dira eta laburpen bat egin dute:

- Eskola espero zuten baino egoera hobeto omen dago.
- Eskola berria egiteko itxaron zerrenda luzea dago eta gure aurretik ~15 bat herri daude.
- Eraikin berria egin beharrean oraingo eskolaren berrikuntza bat kontsidera dezakegula esan dute (horrek prozesua azkartzeko balio dezake).
- Eskolak izan beharko dituen ezaugarriak ez omen dira hasieran esan zizkigutenak. 5 gelako eskola bat planteatzen da, hasieran planteatutakoa baino txikiagoa.
- Harremanetan jarraituko dugu.

2.2- Energia aurrezteko plana

A.R. kideak azaldu du ikaslea lanean dihardula eta etorkizunean informatuta mantenduko gaituela.

2.3- Langileen ordu eta atazen kudeaketa

Udaleko langileen lanak hobeto antolatzearen beharra mahaigaineratu da. K.F.-k komentatu du bi ekimen daudela martxan: Alde batetik IKT dirulaguntzen bidez udalarentzako garatzen ari diren tresna (langileen orduak kudeatzeko) eta bestetik datozen 4 hilabetetan informatika lanak egiten ibiliko den mutilak probatuko dituen groupware tresnak.